

BETEKADA BIDEZKO

NAHASMENDUA EKIDITEKO

TRESNA

*June Agirrebaltzategi, Naroa Agorria,
Gaizka De Bernedo, Pablo Fernandez de
Corres eta Xabi Nanclares*



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko elementuak dira enpresa bati ahalbidetzen diotenak bere balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea.

Gure kasuan baliabide intelektualak zein fisikoak garrantzitsuak izango dira. Alde batetik, baliabide intelektualak beharko ditugu, proiektuaren objektua burutzeko eta aurrera eramateko kalkula dezaten. Hori egiteko, YUKA aplikazioa erabiliko dugu: YUKA aplikazioa Frantzia sortu zuten, 2017ko urtarrilean, kontsumitzen zituzten produktuak ezagutu nahi zituztelako hiru gazteek. Aplikazio honetan jakien barra-kodea kamara aurrean jartzea nahikoa da, kaloria, grasa, azukre, gatz... kopurua jakiteko. Hau barra-kode irakurlean instalatuko dugu, kalorien batura errezago eramateko. Ezartzeko, lan esperientzia eta kalitatea daukaten langileak beharko ditugu. Bizitza osasuntsu bat eramateko nutrizionista batekin hitzordua eskaintzen diegu bezeroei haien bizitza estilora hobetoen egokitzen den "dieta" aukeratzeko. Behin dieta ezarrita, gure tresnan plasmatu da eta dietan ez dagoen zerbait jatean edo betekada bat edukiko duen momentuan tresnak abisatuko du. Momentu horretan, atak itxiko ditu ezer ez jateko.

Bestalde, baliabide fisikoetarako, espazio pribatu bat beharko dugu, non produktua ekoiztu ahalko den, hau da, industria gune bat beharko dugu. Esku lan/ giza lan kualifikatu edota teknologia sofistikatu beharko dugu produktua ekoizterako orduan.

Finantza baliabideei dagokienean, gure aurrezkiak erabilko ditugu hasieran, hala hasten baita ia kasu guztietan enpresa bat. Denborarekin espero dugu gure diru sarrerekin/irabaziekin nahikoa izatea gastuak ordaintzeko eta horretaz gain, beste irabazi batzuk izateko.